



ANDOINGO UDALA

I. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

AZKEN ERABAKIA

I. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko xedez Andoingo Udalak izendatutako Epaimahaiak, Carlos Sanz Díez de Uré, Andoingo Alkatea eta mahaiburua dena, Jesus Etxezarraga Zuluaga, Elixabete Garmendia Lasa, Joserra Garzia Garmendia, Jose Mari Otermin Urtizberea eta idazkari lanetan eta, beraz, hizpidez baina hautespiderik gabe jardun duen Patxi Baztarrika Galparsorok osatu duten Epaimahaiak alegia, honako azken erabaki hau ezagutzera ematea akordatu du:

1.- Lehenik eta behin jakitera ematen da, "herrietako aldizkariak" atalean hogeitabi idazlan eta "baloraziozko kazetaritza" sailean larogeitabi artikulua aurkeztu direla. "Sekzioa" izeneko atalean, berriz, hemezortzi aldizkari eta egunkaritako ehun eta hirurogeitamaika sekzioren azterketa egin du Epaimahaiak.

2.- Euskararen gorpila hainbat eta hainbat esparrutan barrena abiatua da. Azken urteotan, gero eta bide gehiago irekitzen ari da aipatu gorpil hori, euskararen presentzia eremu ugarriz zabalduz eta, bidenabar, normalduz, kazetaritzaren mundua ere harrapatu duelarik. Halere, badugu, oraindik, guztiok, egitekorik asko eskuartean.



ANDOINGO UDALA

3.- Andoingo Udalak "kazetaritza prestu eta modernoa" bultzatu beharrez hitzegin zuten Sari honen deialdia egiterakoan. Esan beharra dago, ordea, gure iritzi apalean behinepein, egungo euskarazko kazetaritza, edo hobeto eta zehatzago esanda prentsa idatzian egiten den euskarazko kazetaritza, hainbat arrazoi dela medio, kazetaritza normaldu eta homologatutik urrun xamar dagoela oraindik, eta, beraz, nabarmena dela alor honetan somatzen den bide urratze premia.

4.- Nolanahi ere, argi eta garbi adierazi eta konstarazi nahi dugu honako hau: kazetaritza sari honetara aurkeztu diren lanak, orohar, maila onekoak erizten ditugula. Eta, ildo berorretatik, gehiago ere esan nahi dugu, pozik esan ere gainera: saritutako lanak oso kalitate onekoak direla, inolako ezpairik gabe. Diogunaren lekuko gisa esan dezagun, Epaimahaiak, nahiz eta Andoingo Udalak ezarritako oinarrietako bederatzigarrenaren arabera Sari hau atalen batetan edo guztietan hutsik uzteko aukera bere esku eduki, inoiz ez duela hori egiteko tentaziorik ukan: tentazio horretatik salbu egon dira uneoro Epaimahaikide guztiak eta bakoitza. Saritutako lanak, bada, meritu guztien jabe erizten ditu Epaimahaiak, saritu gabe geratutakoen tamala hurrengo urteetako esperantzak arintzen digularik.



ANDOINGO UDALA

5.- Hiru ataletako sariak erabakitzerakoan, idazlanen eta sekzioen kazetal balioa hartu da kontutan, beste edonolako kontsiderazioren gainera eta geroago aipatzen den beste zenbait erizpideren kalterik gabe. Beste hitzetan esanda, prentsa normalduan edo, agian hobeto esanda, euskarazko kazetaritza normalduan inolako homologazio arazorik gabe leku propioa izango luketenak saritu dira.

6.- Honako hau da, guzti hori kontutan hartuta sariei dagokienez Epaimahaiak ahobatez bere egiten duen erabakia:

6.1. "Herrietako aldizkariak" ataleko saria, 100.000 pezeta hornitutakoa. Aipatu erizpideez gain, herrietako aldizkariak duten berezitasun propio eta espezifikotasuna erabakiorra izan da sari hau ematerakoan. Herrietako aldizkarietan ezezik hedapen zabalekoetan ere argitara ahal izango liratekeen idazlanen ondoan, herrietako argitalpenetatik kanpo lekuri nekez izan lezaketenak lehenetsi dira. Horrela bada, garrantzi handia eman zaio saritutako idazlanari darion bertakotasunari.

Saritutako idazlana: "Candido Eguren", Eibarko Udalaren "...eta Kitto" aldizkarian argitaratua.



ANDOAINGO UDALA

Autorea: "...eta Kitto" Kolektiboa.

6.2. "Sekzioa" ataleko saria, 250.000 pezetaz hornitutakoa. Kasu honetan, saritu beharrekoa *"mailarik altuena lortu eta gorde duen sekzioa"* izan behar dela zioten, hitzezitz, Andoaino Udalak ezarritako oinarriek. Beraz, sari hau erabakitzerakoan, momentu jakin batetan lortutako maila ona ezezik, ontasun horren iraunkortasuna ere kontutan izan du Epaimahaiak. Horrela, bada, etorkizuneko kazetaritza normalduan ezinbestekoa baino gehiago kalitatearen adierazle izango litzatekeen sekzio bati eman zaio saria.

Saritutako sekzioa: "Zimurdurak", El Diario Vasco-ren "Zabalik" gehigarrian argitaratzen dena.

Sekzioaren argitalpenaren arduraduna: Felix Ibargutxi jauna.

Sekzioaren idazlea: Andoni Egaña jauna

6.3. "Baloraziozko kazetaritza" ataleko saria, 250.000 pezetaz hornitutakoa. Alor hauxe da Sari honi izena eman dion Rikardo Arregi zenak kazetaritzaren esparruan jorratu zuen jeneroa. Lehenago aipatu erizpideez gain, oinarrietako laugarrenak atal honetako sariari buruz dioena ere oso kontutan izan du Epaimahaiak. Ikus dezagun aipatu oinarriak dioena, hitzezitz emanda: *"fenomeno puntual eta konkretuen azalpenetatik areago doazen artikulua izan beharko dute hauek, nahiz*



ANDOAINGO UDALA

eta datuak ematen dituzten eta, beste zenbaiten artean, gertakizun konkretuetatik abiatuz egindako idazlanak izan. Sari hau erabakitzerakoan, Epaimahaiak oso kontuan hartuko ditu egileak aztergalari buruz egiten duen hausnarketa edo balorazio propioaren sakontasuna eta zorroztasuna."

Saritutako artikulua: "Ni aldekoen kontrakoa naiz",
1.988ko ekainaren 27an "Nafarroa Gaur"-en argitaratua eta hil bereko 30ean "Eguna"-n berrargitaratua.

Autorea: Patxi Perurena jauna.

6.4. "Ohorezko aipamena". Sari hau arautzen duten oinarrietan aipamen berezien aukerarik aurrikusten ez bada ere, Kazetaritza Sari honen lehen edizio honetan honelako aipamen bat egitea erabaki du Epaimahaiak. Giza-iharduera guztiek dute ez lehenagoko baizik eta bere momentuko kreazio propioaren zati haundi bat; guztia ez da, ordea, hutsetik sortua izan ohi, aurrez egindakoaren eraberrikuntzak ere izaten baitu bere lekua. Abiapuntu guztiak ez dira momentu berekoak izan ohi, beraz.








ANDOAINGO UDALA

Giza-iharduera bat den heinean, kazetaritzarentzat ere balio du esandakoak. Etorkizuneko euskal kazetaritzak bere abiapuntuak gaurregun hezurmamitzen ari den honetan izango dituen bezalaxe, gaurko honen sustraiak ere iraganekoan dautza. Oraingo euskarazko kazetaritzaren erroetara jotzeak, iragana bistaratzera garamatza. Gaur gihartzen ari den euskarazko kazetaritzari aspaldi ekin zion zenbaitek, eta ekin ondoren urte luzetan eta ez baldintzarik hoberenetan jarraitu ere jarraitu du. Horregatik, bidezkoa ezezik nahitaezkoa eta justiziazkoa eritzi du Epaimahaiak, urte guztiotan Ifarraldetik euskal kazetaritzan biderakusle izan dugun eta orain ere bidea urratzen darraien "Herria" aldizkariaren aipamen berezia egitea I. Rikardo Arregi Kazetaritza Sari honen lehen edizioan, aurten bete baitira 102 urte "Eskualduna/Herria" aldizkariaren lehen zenbakia kaleratu zela.

Honaino, bada, I. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariari dagokion azken erabakia, Epaimahaikide guztiok ontzat ematen eta sinatzen duguna.

Andoain, 1.989ko uztailak 15.

 

 
Elizabeth Garbende